

URRETXUKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN "11.1 GAINZURI-KOMENTUA" AZPIEREMUARI BURUZKO ALDAKETAREN INGURUMEN-TXOSTEN ESTRATEGIKOA

1.- Aurrekariak

2024ko irailaren 10ean, Urretxuko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiari eskatu dio has dadila izapidetzen Gainzuri-Komentua 11.1 azpieremuari dagokion HAPOaren aldaketaren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua. Eskaerarekin batera, Udalak arau subsidiarioen aldaketaren zirriborroa eta haren ingurumen-dokumentu estrategikoa bidali ditu.

Gainzuri-Komentua 11.1 azpieremuari dagokion HAPOaren aldaketari ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egin behar zaio, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.2.a) artikuluan (*Aurreko paragrafoan aipatutako plan eta programetan aldaketa txikiak egitea*) eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.B eranskinaren 2. apartatuan ezarritako inguruabarrak gertatzen direlako.

Beraz, prozedura horren esparruan, eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 30. artikuluan xedatutako eraginpeko administrazio, pertsona eta erakundeei kontsulta egiteko izapidea egin ondoren, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiari dagokio ingurumen-txosten estrategikoa ematea. Txosten horretan, 21/2013 Legearen V. eranskinean eta 10/2021 Legearen II.C eranskinean ezarritako irizpideekin bat etorritik, eta egindako kontsulten emaitza ikusita, zehazten da aldaketak ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzakeen, eta, beraz, ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura bete behar duen ala ez, ingurumen-txosten estrategikoak ezarritakoaren arabera.

2.- Helburuak eta aldaketan proposatutako antolamendua.

"11.1 Gainzuri-Komentua" azpieremuan indarrean dagoen hirigintza-araubidea Urretxuko egungo HAPOan ezarritakoa da, zeina behin betiko onartu baitzen Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2021eko irailaren 14ko erabakiaren bidez.

Haren lursailak "hiri-lurzoru finkatugabe" gisa kategorizatuta daude, urbanizazio finkaturik ez dutelako, eta "A.2. Eraikuntza irekiko bizitegia" eremu globalaren barruan sartzen dira. Kalifikazio xehatuari dagokionez, honako azpieremu hauek bereizten dira: "a.2. Eraikuntza irekiko bizitegi-lurzutia"; "c. Komunitate-ekipamendurako lurzutiak"; "d. Tokiko espazio librea" eta "e.1. Bide-sarea". Azkenik, sestra gaineko hirigintza-eraikigarritasuna 7.500 m² (t) izango da, honela banatuta: alde batetik, 6.430 m²(t) bizitegi-erabileretarako –2.430 m²(t) etxebizitza babestuenen erregimenari atxikiak eta 4.000 m²(t) sustapen librerako–, eta, bestetik, 1.070 m²(t) baimendutako beste erabilera batzuetarako (tertzarioak, atariak eta elementu komunak barne). Aurreikusitako etxebizitzaren kopurua: 65.

Indarrean dauden eraikuntza-parametroak 2022ko uztailaren 21eko erabakiaren bidez behin betiko onartutako xehetasun-azterketan ezarritakoak dira. Gainera, egikaritzeari dagokionez, 2022ko irailetik 2023ko maiatzera bitartean, dokumentu hauek onartu dira: ituntze-hitza, urbanizatzeko jarduketaren programa eta birpartzelazio- eta urbanizazio-proiektuak.

Garapenaren bideragarritasun ekonomikoa bermatu behar eragin du aldaketa hau, azken urteotan eraikinak eraikitze eta urbanizatzeko obren kostuak nabarmen igo baitira. Aurreikusitako eraikigarritasunaren hazkunde mugatua eta arrazoizkoa ekarriko du, eragindako ingurunearen hirigintza- eta ingurumen-baldintzekin bat etorritik.



Illo horretan, aldaketak finkatu egiten ditu hirigintza-kalifikazioa (globala eta xehatua), lursailen hirigintza-sailkapena eta -kategorizazioa eta HAPOan ezarritako egikaritze-baldintzak arautzen dituzten aurreikuspenak, honako salbuespen hauekin:

- Sestra gaineko bizitegirako hirigintza-eraikigarritasuna $8.100 \text{ m}^2(\text{t})$ -ra arte handitzen du; horietatik $670 \text{ m}^2(\text{t})$ bizitegi-erabileren erabilera lagungarrietarako izango dira eta $7.430 \text{ m}^2(\text{t})$ bizitegi-erabileretarako $-1.415 \text{ m}^2(\text{t})$ gizarte-babeseko erregimenean, $1.415 \text{ m}^2(\text{t})$ etxebizitza tasatuko erregimenean eta $4.600 \text{ m}^2(\text{t})$ sustapen librean-. Aurreikusitako etxebizitzaren kopurua: 75.
- Aurreikusitako hirugarren sektoreko garapena ezabatzen du eta, neurri batean, hondar-erabileretara bideratzen da $-400 \text{ m}^2(\text{t})$ - eta, gainerakoa $-670 \text{ m}^2(\text{t})$ -, eraikinen beheko solairuko erabilera osagarrietara (bizikleta-gelak, haur-ibilgailuak, instalazioak eta abar).
- Eraikuntza-parametroak berregokitzen ditu, eta horrek esan nahi du aurreikusi gabeko atikoko solairu bat antolatuko dela, eta, horrez gain, aldaketa puntualak eta mugatuak egingo direla oinplanoko okupazioa erregulatzeko lerrokaduretan, eta abar.

Dokumentu hauek egin, izapidetu eta onartu beharko dira: jarduketa integratuko programa eta birpartzelazio- eta urbanizazio-proiektuak. Dokumentu horiek guztiak berriak edo indarrean daudenak aldatzearen ondoriozkoak izan daitezke.

3.- Kontsulta gaiak eragiten dien administrazioei, pertsona interesdunei eta jendeari oro har,

21/2013 Legearen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta aldaketa puntualaren eta eraginpeko lurralde-eremuaren ezaugarrietan oinarrituta, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusi honek interesdun gisa identifikatu ditu eta kontsulta egin die honako administrazio eta erakunde hauei, organo sustatzaileak egindako dokumentazioa haiei bidali baitzien:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko (GFA) Kultura Ondarearen Zuzendaritza Nagusia.
- GFAko Nekazaritzako eta Lurralde Oreko Zuzendaritza Nagusia.
- GFAko Mendietako eta Natura Ingurune Zuzendaritza Nagusia.
- GFAko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.
- GFAko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia.
- GFAko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia.
- GFAko Errepideetako Zuzendaritza Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia Trantsizio Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.
- IHOBE.
- EEE (Energiaren Euskal Erakundea).
- Uraren Euskal Agentzia (URA).
- Kantaurikoko Ur Konfederazioa.



- Gipuzkoako Uren Kontsortzioa.
- Goieki.
- Goimen.
- EHNE.
- ENBA.
- Aranzadi Zientzia Elkartea.
- Landarlan Ingurumen Elkartea.
- Eguzki Talde Ekologista.
- Ekologistak Martxan.
- Haritzalde Naturzaleen Elkartea.
- Itsas Enara Ornitologia Elkartea.

Era berean, dokumentazioa eskuragarri egon da Jasangarritasun Departamentuaren Interneteko atarian (www.gipuzkoaingurumena.eus), jendeak oro har eta edozein interesdunek egoki iritzitako ingurumen-ekarpenak egin ahal izateko.

Epea amaituta, eta txosten hau igorri zen egunera arte, erantzun eta ekarpen hauek jaso dira:

- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak adierazi du ez dela beharrezkoa horri buruzko txostenik egitea.
- GFAko Nekazaritza eta Lurralde Oreekako Zuzendaritzak ez du beharrezkotzat jotzen txostena egitea, izan ere, aldaketaren eremua hiri-lurzorua da eta, beraz, ez du eraginik nekazaritza eta basozaintzako LPsko zehaztapenetan.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak jakinarazten du, egin beharreko obretatik erator daitezkeen drainatze-obra guztiak diseinatzerakoan, kontuan hartuko dela aztertutako eremuko prezipitazio-isomaximoak 250 eta 300 mm/egun bitartekoak direla. Bestalde, jakinarazi du eremua V intentsitateko eremuan dagoela, Arrisku Sismikorako Larrialdi Planaren arabera, eta, beraz, udalerria salbuetsita dago horri buruzko larrialdi-plan bat egitetik. Hala ere, eraikuntza berrietan kontuan hartu beharko da 997/2002 Errege Dekretuak onartutako eraikuntza sismo-erresistentearen araua. Salgai arriskutsuak garraiatzeko arriskuari dagokionez, azterketa-eremua 200 eta 600 metro bitarteko tartean dago, bai Madril eta Irun trenbidean, batez beste kartografiatutako arrisku batekin, bai GI-2632 errepidean, oso arrisku kartografiatu handiarekin.
- Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak jakinarazi du aldaketaren eremua Urretxuko herrigunean dagoela, eta, beraz, eremuaren interesa eremuko landarediarekin lotuta dagoela. Beharrezkotzat jotzen du ingurumen-dokumentuan eta hirigintza-dokumentuan landaredi horren gaineko inpaktuei buruzko prebentzio- eta zuzenketa-neurriak jasotzea, hala nola:
 - Proposatutako antolamenduaren espazio libreetan interes handieneko zuhaitz-aleak kontserbatzea eta integratzea. Horien babesa hirigintza-antolamendua egikaritzeko baldintzetan jaso beharko da.
 - Azpierreuari lotutako espazio libreak diseinatu eta gauzatzeko, IHOBek lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko argitaratutako eskuliburuko jarraibideak jarraitzea gomendatzen da.
- GFAko Kultura Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi du esku-hartzea egin nahi den kokalekuan honako elementu hauek daudela, duten ondare-interesagatik babesteko proposatzen diren higiezin ONDAREA Eusko Jaurlaritzaren zerrendan jasota daudenak (2020ko azaroa): Karitatearen eliza eta Orbegozo txaleta.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du bi eraikin eraitsiko direla, Euskal Kultura Ondarearen EAEko Zentroaren datu-basean tokiko babes-proposamen bat dutenak:



Karitatearen eliza eta Orbegozo txaleta. Karitateko eliza antolamendu berrian mantentzea gomendatzen du.

- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak jakinarazi du Urretxuko udal-mugartea ez dagoela bere eskumenen lurralde-eremuaren barruan, eta, beraz, ez duela horren inguruan erabaki behar.

Erantzunek eta ekarpenek adierazitako alderdiak, aldaketa puntualaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren berezko edukietan eta helburuetan eragiten dutenak, ingurumen-txosten estrategiko honen ataletan aztertu eta hartu dira kontuan.

Era berean, jasotako erantzun guztiak eta txosten hau egin ondoren iristen direnak Urretxuko Udalera bidaliko dira, aldaketa egitean eta izapidetzean kontuan har daitezen, hala badagokio.

4.- Ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen V. eranskinean eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legearen II.C eranskinean jasotako irizpideen araberrako analisisa.

1.- Aldaketaren ezaugarriak:

Aldaketa hiri-eremu batean garatuko da, eta bideragarritasun ekonomiko ziurtatzeko indarrean dagoen HAPOan ezarritako antolamendua egokitzeko beharri erantzuten dio.

Aldaketa horren bidez, bideragarria izango da HAPOan jasota zeuden bi bizitegi-eraikinak ezartzea, eta, horrela, 75 etxebizitza berri txertatuko dira udalerriko bizitegi-eskaintzan –hasieran aurreikusitakoak baino 10 gehiago–. Horrela, eta LAGek ezarritako gidalerroei jarraikiz, udalerriko hiri-bilbean kokatutako lurzoru horiek ahalik eta gehien birziklatzea eta aprobetxatzea lortzen da; lurzoru horiek etxebizitzaren gizarte-premiei erantzuteko ezarrita dauden beharrezko zerbitzu guztiak dituzte.

Gainera, garapen horren bideragarritasun ekonomiko ziurtatzeak aukera emango du irisgarritasun-baldintzak hobetzeko Labeaga kaletik gertu dauden herriguneko goiko auzoetara eta Gainzuriko eskola-lurzati publikoko goiko eremura, bi igogailu publiko ezarri, bai eta azpierremitik kanpo osatu behar diren pasabideak ezarri ere.

Aldaketa, besteak beste, urbanizazio- eta eraikuntza-proiektuen bidez garatuko da, ingurune oso txiki batean, beste plan eta programa batzuetan eraginik izan gabe, eta ingurumen-arazo esanguratsurik eragin gabe, kokapenagatik eta garrantzi txikiagatik. Era berean, ez da egokia Europako edo Espainiako ingurumen-legedia ezartzeko.

2.- Ondorioen eta eragina jasan lezakeen eremuaren ezaugarriak

"11.1 Gainzuri-Komentua" azpierremitua Urretxuko hiri-bilbean dago, jada antropizatuta dagoen ingurune batean. Honako muga hauek ditu: hegoaldean, Labeaga kalea; iparraldean, Sorginzulo kalea; ekialdean, Gainzuri ikastetxea; mendebaldean, finkatutako zenbait lurzati. Bertan dago Karitateko Alaben komentua, nahiz eta aginduak duela urte batzuk utzi zuen leku hori, bai eta lotutako zenbait eraikin eta 1930ean ordena bererako eraikitako Milagrosa eliza ere, gaur egun jendearentzat itxita dagoena. Era berean, familia bakarreko bizitegi-lurzati bat dago (Esther-Enea).

Aurrekoa kontuan hartuta, honako hauek izango dira eremuan dauden ingurumen-faktore nagusiak eta aldaketaren ondoriozko jarduketetarako planteatutako antolamenduari dagokionez baloratu beharreko efektuen eta arriskuen ezaugarriak:

- Hidrologia eta hidrogeologia. Ez dago eremutik igarotzen den ur-ibilgurik, eta lursailek iragazkortasun txikia dute, porositateagatik.
- Gune babestuak eta natura-intereseko eremuak. Azpierremitua ez da ezein gune babesturen edo interes-guneren parte, guztiz antropizatuta baitago.



- Landaretza. Eremuan gauzatutako hirigintza-garapenak garai batean zeuden lurzoru emankorrak kendu zituzten, eta gaur egun dauden lorategiz eta zuhaitziz hornitutako eremuak orduan egin ziren urbanizazio- eta/edo antropogenika-jarduketara horien emaitza dira. Horrela, Esther-Enea etxearen inguruan, Labeaga kaleraino jaitsiz, koniferoz (batez ere, altzifreak) eta hostozabalez osatutako zuhaitz-masa bat dago, baita soropila, magnolioren bat eta landaredi erruderal-nitrofiloa ere. Bestalde, komentutik gertu, lizar-multzo bat nabarmentzen da, horietako bost tamaina handikoak eta ondo kontserbatuak. Ez da aurkitu flora mehatxaturik, ezta interes komunitarioko habitatik ere. Ingurumen-txosten estrategikoak kontuan hartzen du dagoen landarediaren gaineko inpaktu moderatua, eremu horretan HAPOaren antolamendua onartzearen ondorioz egindako ingurumen-azterketan ere kalifikatzen zen bezala.
- Fauna. Aldaketa jada antropizatuta eta aldatuta dagoen hiri-eremu batean garatzen denez, bertako fauna-espezieak hiri-eremuetako eta hiri-inguruko eremuetako espezie tipikoak izango dira.
- Paisaia. Azpieremua eta haren ingurunea Legazpiko ikuseremua dira, oso ohikoa da eta ez dago katalogatuta, paisaia-balio txikia duelako. Eremuko paisaia jabari antropogenikoko hiri-paisaia da. Ez dago sartuta EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoan.
- Kultura ondarea. Ingurumen-dokumentu estrategikoan adierazten bada ere ez dagoela katalogatutako elementurik eta, beraz, aldaketak ez duela inolako eraginik alderdi horretan, Euskal Kultura Ondarearen Zentroak, kontsultei emandako erantzunean, jakinarazten du ezen, eraitsiko diren eraikinen artean, bi eraikinek tokiko babes-proposamen bat dutela beren datu-basean: Karitateko eliza eta Orbegozo txaleta (Esther-Enea etxea). Ondorioz, gutxienez elizaren eraikina mantentzea gomendatzen du, proposatutako antolamendua arriskuan jartzen ez duen bitartean. Nolanahi ere, azpimarratu behar da eragin hori jada gertatzen zela HAPOan onartutako antolamenduarekin, zeinak bi eraikinak ere desagerrarazten baitzuten.
- Ingurumen arriskuak.
 - *Gai arriskutsuen garraioaren arriskua*: Madril-Irun trenbidetik eta Gi-2632 errepidetik 200 eta 600 metro arteko afekzio-bandaren artean dago eremua, arrisku ertainarekin, eta oso arrisku kartografiatu handiarekin.
- Soinu kalitatea. Aldaketaren dokumentazioaren barruan, inpaktu akustikoari buruzko azterlan bat sartu da, Euskal Autonomia Erkidegoko hots kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera. Azpieremua "A. Bizitegi-lurzorua nagusi den eremuak" izeneko eremu akustikoaren parte da. Gaur egun, eta aztertutako hiru aldietako batean ere ez dira gainditzen Dekretu horretan bizitegi-eremuetarako ezarritako mugak, eta zarata-mailak aldi murriztaileenean (gauez) 45 eta 50 db (A) bitartean daude. Aldaketaren ondoren, gaur egun erregistratutako maila eutsiko zaie, eta, beraz, 213/2012 Dekretuaren 31. artikuluan eta A taulan etorkizuneko garapenetarako ezarritako kalitate akustikoko helburuak beteko dira kasu guztietan (eguna, arratsaldea eta gaua).

Kontuan izan behar da, azaldu den bezala, aldaketak HAPOan ezarritakoari dagokionez egiten dituen aldaketak oso mugatuak eta puntualak direla, eta, beraz, ingurumenaren ikuspegitik, eremuaren balioetan izango duen eragina HAPOaren izapidetzean baloratu zenaren oso antzekoa izango da. Eremu horretarako HAPOan proposatutakoarekin alderatuta 10 etxebizitza gehiago egoteak, egia esan, puntualki handitu ditzake mugikortasuna eta hiri-hondakinen eta hondakin-uren ekoizpena, baita ustiapen-faseko baliabideen kontsumoa ere, baina oso kopuru mugatuan -10 etxebizitza gehigarri horiek HAPOan antolatutako etxebizitza guztien % 2,95 dira-.

Horrenbestez, aurreko kontsiderazio guztiak kontuan hartuta, ondorioztatzen da HAPOaren aldaketan proposatutako antolamenduak ez dakarrela ingurumen-inpaktu kaltegarri nabarmenik Gai-azterketaren Komentua

11.1 azpieremuan; beraz, ez da beharrezkotzat jotzen ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura egitea, betiere, txosten honetan xedatutakoaren arabera, planean bertan eta hura garatzeko tresnetan (urbanizazio- eta eraikuntza-proiektuak) zehaztu eta sartu behar diren irizpideak eta babes-neurriak eta ingurumen-integraziokoak kontuan hartzen badira.

Horrenbestez, aurreko guztiari jarraikiz, eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 31. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta Jasangarritasun Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko urriaren 1eko 29/2024 Foru Dekretuan aurreikusitakoari jarraikiz, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiak ingurumen-txosten estrategikoa egin du, baldintza hauetan:

Lehenengoa.- Urretxuko 11.1 Gainzuri-Komentua azpieremuaren erreferentziako HAPOaren aldaketa ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren mende ez jartzea; izan ere, 21/2013 Legearen V. eranskinean eta 10/2021 Legearen II.C eranskinean ezarritako irizpideen arabera egindako azterketaren arabera, eta egindako kontsulten emaitza kontuan hartuta, ondorioztatzen da ez duela eragin negatibo nabarmenik izango ingurumenean, betiere ingurumen-txosten estrategiko honen bigarren apartatuan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Bigarrena.- Gainzuri-Komentua 11.1 azpieremuko HAPOaren aldaketak eta haren ingurumen-dokumentu estrategikoak zehaztaperen hauek jasoko dituzte:

1. Neurri babesle eta zuzentzaileak eta ingurumen-dokumentu estrategikoa gainbegiratzeko programa. Badirudi akats bat dagoela aurkeztutako dokumentazioan; izan ere, X. epigrafean ez dira garatzen gainbegiratzeko-programari buruzko XI. epigrafearen arabera gero gainbegiratzeko diren neurriak. Bi epigrafeak berrikusi beharko dira, X epigrafean benetan zehaztu daitezkeen detektatutako inpaktuen arabera inplementatu beharrezkotzat jotzen diren neurri babesle eta zuzentzaileak, eta XI. epigrafean xehetasun handiagoz ezar daitezkeen aldaketa garatzen eta gauzatzen den bitartean horiek gainbegiratzeko kontrolak.

Aldaketan kontuan hartu beharreko neurri babesle eta zuzentzaileei dagokienez, inpaktuak HAPOan ebaluatutako antolamenduaren oso antzekoak direla kontuan hartuta, AU.11 Gainzuri-Mundo Mejor eremuaren hirigintza-fitxan ezarritako ingurumen-neurriak aplikatzeko zaizkio: Hirigintza Arau Orokorren dokumentuko Zazpigarren Tituluko III. kapituluaren zehaztutakoak eta HAPOko ingurumen-azterketa estrategikoaren XI. apartatuan ezarritakoak. Ondorioz, bi dokumentuetan jasotako neurrien laburpen bat egingo da, aldaketak ustez eragingo dituen inpaktuei aplikatzekoak direnak soilik sartzeko ingurumen-dokumentu estrategikoan.

Era berean, aztertuko da zer aukera dagoen Euskal Kultura Ondarearen Zentroak eta Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak hurrenez hurren proposatutako bi neurri hauek ordenamenduan sartzeko, aurretiko kontsulta-aldian:

- *Kultur ondarearen kontserbazioa:* Karitateko eliza antolamendu berrian mantentzea.
- *Landaretza.* Azpieremuan dauden interes handieneko zuhaitzak kontserbatzea, eta aurreikusitako espazio libreetan sartzeko. Gainera, espazio libre horiek diseinatu eta gauzatzeko, kontuan hartuko dira IHOBek lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko argitaratutako eskuliburuak jarraibideak.

2. Aldaketan ingurumen-dokumentu estrategikoa txertatzea.

- Aldaketan ezarriko da eraketa-dokumentuen artean ingurumen-dokumentu estrategikoa dagoela.
- Aldaketaren araudian aipatu beharko da ingurumen-dokumentu estrategikoan dagozkion apartatuetan jasotako neurri babesle, zuzentzaile eta ingurumen-integraziokoak, baita ingurumen-jarraipenerako programa ere, lotesleak eta nahitaez bete beharrekoak izango direla. Haien



zehaztapenek, halaber, aldaketa garatzeko tresnetan (urbanizazio- eta eraikuntza-proiektuak) zehaztu beharko dute haien garapena. Horretarako, bi proiektuetan aurrekontu bat sartuko da, neurri horiek eta ingurumen-jarraipeneko programa abian jarriko direla ziurtatzeko, eta horiek gauzatzeko arduradunak ezarriko dira.

Hirugarrena.- Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-txosten estrategiko hau nahitaezkoa eta loteslea da.

Laugarrena.- Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.5 artikulua ezarritakoaren arabera, ingurumen-txosten estrategiko honek indarraldia galduko du eta berezko dituen efektuak sortzeari utziko dio, behin Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta lau urteko gehieneko epean aldaketa onartzen ez bada.

Bosgarrena.- Ingurumen-txosten estrategiko hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta zuzendaritza honen webgunean argitaratzeko agintzen da.

Donostia, 2024ko azaroak 29.

INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARI NAGUSIA

Miriam Oca Pascual